

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2023ko ekainaren 24tik ekainaren 30erako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2023/06/28

- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2023ko ekainaren 9koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiak emana, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baita ikus-entzunezko obren ekoizleen eta haietan lan egiten duten figuranteen arteko lan-harremanak arautzeko Estatuko Hitzarmen Kolektiboaren 2023. eta 2024. urteetarako soldatak eguneratzeko Erabakiaren akta. **15124 xedapena- 3 or.**

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2023/06/26

- **EKONOMIA GAIETAKO ETA TRANSFORMAZIO DIGITALEKO MINISTERIOA. Antolaketa.** ETD/680/2023 Agindua, ekainaren 20koa, Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioaren Iruzzurren aurkako Batzordea sortzen duena eta haren osaera eta eginkizunak zehazten dituen. **14934 xedapena- 4 or.**

2023/06/27

- **GARRAIOETAKO, MUGIKORTASUNEN ETA HIRI AGENDA KO MINISTERIOA Laguntzak.** TMA/686/2023 Agindua, ekainaren 22koa, zeinaren bidez aldatzen baitira azaroaren 16ko 983/2021 Errege Dekretuaren I. eta III. eranskinak. Errege-dekretu horrek onartzen du zuzenean ematea autonomia-erkidegoei eta Ceuta eta Melilla hiri autonomoei errepideko garraio-zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresa pribatuetako bidaiarien eta salgaien garraio-flotak eraldatzeko laguntzak, bai eta garraio pribatu osagarria eskaintzen duten enpresetarako laguntzak ere, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan. **15001 xedapena- 6 or.**

2023/06/28

- **DATUAK BABESTEKO ESPAINIAKO BULEGOA. Datu pertsonalak.** 1/2023 Zirkularra, ekainaren 26koa, Telekomunikazioei buruzko ekainaren 28ko 11/2022 Lege Orokorraren 66.1.b) artikulua aplikatzeari buruzkoa. **15071 xedapena- 5 or.**

- **BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA. Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko Epaitegia.** 2023ko ekainaren 22ko Erabakia, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Batzorde Iraunkorrarena, zeinaren bidez epaitegi jakin batzuen esku ipintzen baita higiezin berme errealak dituzten finantzaketa-kontratueta sartutako baldintza orokorre buruzko banakako ekintzen berri izatea —betiere epaitegi bakoitzarentzat adierazitako lurralde-eskumenarekin, modu eksklusiboan, eta baztertzailean edo ez-baztertzailean, kasuaren arabera—, baldin eta mailegu hartzailea pertsona fisikoa bada. 15105 xedapena- 2 or.

2023/06/29

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. Presako neurriak.** 5/2023 Errege Lege Dekretua, ekainaren 28koa, zenbait neurri hartzen eta luzatzen dituen Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko, La Palma uhartea berreraikitze eta beste kalteberatasun-egoera batzuetarako; Europar Batasunaren direktibak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dituen, merkataritza-sozietateen egitura-aldaketei eta gurasoen eta zaintzaileen familia-bizitza eta bizitza profesionala kontziliatzeari dagokien; eta Europar Batasuneko zuzenbidea betearazteari eta betetzeari buruzkoa. 15135 xedapena- 224 or.
- **HAUTESKUNDE BATZORDE ZENTRALA. Hauteskundeak.** 7/2023 Jarraibidea, ekainaren 28koa, Hauteskunde Batzorde Zentralarena, Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 27.3 artikulua interpretazioari buruzko apirilaren 28ko 6/2011 Jarraibidea aldatzen duena, hauteskunde-mahaletako presidente- eta bokal-karguetarako eragozpen eta desenkusa justifikatuei buruzkoa. 15138 xedapena- 6 or.

2023/06/30

- **GARRAIOETAKO, MUGIKORTASUNEN ETA HIRI AGENDA MINISTERTIA Trenbide-azpiegiturak.** TMA/698/2023 Agindua, ekainaren 27koa, trenbide-azpiegiturak zaintzeko jardura-erregistroei buruzko jarraibidea onesten duena (REVINFE-23). 15234 xedapena- 25 or.

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2023/06/26

- **GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA.** 89/2023 DEKRETUA, ekainaren 13koa, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren esparruan arau-hausteen berri emateko eta informatzaileak babesteko barneko informazio-sistema sortu eta arautzen duena. 3012e xedapena- 12 or.

2023/06/30

- **GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA.** 91/2023 DEKRETUA, ekainaren 20koa, herritarrei arreta integral eta multikanala emateko eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izateko. 3141e xedapena- 93 or.

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2023/06/26

- **GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA.** 11/2023 Foru Dekretua, ekainaren 13koa, Gipuzkoako Elkarritzeta Zibilerako Mahaia sortzen eta arautzen duena. **4606 xedapena- 11 or.**

2023/06/29

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** 286/2023 Foru Agindua, ekainaren 24koa, zeinaren bidez aldatzen baita 614/2021 Foru Agindua, azaroaren 15ekoa, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko zerga ordezkarien errolda arautzen duena. **4761 xedapena- 3 or.**

E.B.A.O. (Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

2023/06/30

- **ERREGELAMENDUAK.** Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2023/1322 (EB) Erregelamendua, 2023ko ekainaren 27koa, Europar Batasuneko Drogen Agentziari buruzkoa eta 1920/2006 (EE) Erregelamendua indargabetzen duena. **L 166/6 xedapena - 42 or.**

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL Nº 2

HENAO, 26 - BILBAO